



## EUROPA (2018ko abendua) Prensa oharra

### Sarrera

Ikerketaren helburua izan da herritarrek Europar Batasunari buruz duten iritzia jasotzea. Landa lana 2018ko azaroaren 6a eta 8a bitartean egin zen.

### Europar Batasunaren balorazioa

#### Europar Batasunari buruzko balorazio zuhurra egiten dute euskal herritarrek

Inkestatutako pertsonen erdia baino gehiago agertu dira Europako gaiekin interesatuak (%56 oso edo nahikoa interes). Interesa geroz eta handiagoa da eta egungo portzentajea aurreko neurraldietan jasotakoa baino altuagoa da: 2007an %50ek zuten interes handia edo nahikoa, eta 2009an %45ek.

Biztanleria banatuta agertzen da Europarekiko lotura handia edo nahikoa sentitzen dutenen (%50) eta lotura txikia edo batere loturarik sentitzen ez dutenen (%47) artean. Euskal herritarren lotura Europar Batasuneko biztanleek erakusten dutena baino apalagoa da.

Europaz euskal herritarrek duten irudia ez da asko aldatu azken urteetan. Azken ikerketa honetan, %39k adierazi dute euren iritziz Europak irudi positiboa dutela (oso edo nahikoa positiboa), aldiz %19k esan dute irudi negatiboa duela, eta %38k irudi neutroa duela esan dute. Euskal herritarrek Europaz duten irudia dezente gerturatzen da Europako herrialdeetako biztanleek dutenena, eta Espainiakoek dutena baino dezente positiboagoa da.

Europar Batasuneko irudia maila handiagoan lotzen da modernitatearekin (%57k asko edo dezente) eta demokraziarekin (%50), eta maila apalagoan babeslea izateren irudiarekin (%39) eta efizientziarekin (%35). Dezente gutxiago dira elkartasunarekin lotzen duten biztanleak (%28). Euskadin ezaugarri hauek guztiak neurri apalagoan lotzen dira Europarekin, Europako Batasuneko herrialdeetako batez bestekoa baino.

Euskal Herritarrek Europar Batasunarekin lotutako gaien inguruan duten ezagutza nahikoa mugatua da; soilik %57k jakin dute Suitza ez dela Europar Batasuneko kide eta %21ek jakin dute esaten nor den Europako Batzordeko lehendakaria. Ezagutza Europako batz bestekoaren azpitik kokatzen da.

#### Herritarrek nahiko lukete Europar Batasunak erabaki ahalmen handiagoa izatea gai giltzarrietan

Gehiengo garbia ados agertu da Europar Batasunak inkestan proposatutako gai giltzarrietan erabaki ahalmen handiagoa izatearekin: ingurumenaren babesean (%91), pobreziaren aurkako borrokan (%91), inbertsioak handitu eta enplegua sortzen bultzatzean (%87), terrorismoaren aurkako borrokan (%83) eta Europar Batasunetik kanpoko migrazio politikan (%77).

Europar Batasunaren izaerari dagokionez, gehienek uste dute Europar Batasuna botere ekonomiko eta finantzarioek menderatutako egitasmoa dela (%82 nahikoa edo oso ados), baina aldi berean uste da Europar Batasunak indar eta tresna nahikoak dituela Europaren interes ekonomikoak munduan defendatzeko (%68). Gutxiengoak dira, aldiz, uste dutenak herrialde pobreenetako biztanleen bizi baldintzak hobetu egiten direla Europar Batasuneko kide izateagatik (%39).

#### Europar Batasuneko egitasmoari buruz herritarren optimismo maila txikia da

Europar Batasunaren etorkizunari buruz, euskal herritarrek banatuta agertu dira oso edo nahikoa optimista direnen (%46) eta oso edo nahikoa pesimistak direnen (%45) artean. Euskal herritarren optimismo maila txikia da Europar Batasuneko herrialdeetako herritarrek dutenarekin alderatuta.

### Euskadi European

#### Euskadi Europar Batasuneko egitasmoaren parte izatearen gaineko balorazio positiboa

Herritarren gehiengoak uste du Euskadirentzat ona dela Europar Batasunean egotea (%61), %29k uste dute ez dela ez ona eta ez txarra, eta soilik %5ek uste dute txarra dela.

Europar Batasunean egoteak Euskadiri zein esparrutan mesede egiten dion galdetuta gehiengoak uste du mesede egiten diola egoera ekonomikoan (%67), euskal gizartearen modernizazioan (%61), Euskadik munduan duen tokian (%59) eta zerbitzu publikoen kalitatean (%51). Aldiz, bere kultura eta identitatea mantentzeko garaian, gehiago dira mesederik egiten ez diola uste dutenak (%48), mesede egiten diola uste dutenak baino (%38).



Elkarrizketatutako pertsonen gehiengo zabalak uste du Europar Batasunean Euskadiri eragiten dioten gaiak lantzen direnean gaiak arduratzen den Eusko Jaurlaritzako sailburuak bertan egon beharko lukeela: soilik euskal sailburuak egon beharko luke %43ren iritziz, eta Espainiako ministroarekin batera %35en iritziz.

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok entzun du ezer Euskadik Bruselan duen egoitzaz (%54).

## Brexit

### **Gehienek uste dute Brexitak Europar Batasuneko egitasmoari kalte egingo diola. Ez dago hain garbi Euskadirentzat ondorioak izango dituen edo ez**

Herritarren gehiengoak entzun du zerbait Erresuma Batuak Europar Batasuna uzteko hartutako erabakiari buruz, Brexit bezala ezagutzen denari buruz (%89). Gehienek uste dute ere erabaki horrek kaltetu egingo duela Europar Batasuneko egitasmoa (%23k asko eta %35ek nahikoa).

Euskadiri dagokionez, iritziak banatuago aurkitzen dira: %43k uste dute Euskadirentzat ondorio kaltegarriak izango dituela, eta aldiz, %37k uste dute ez duela inolako ondoriorik izango Euskadirentzat.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 800 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 3,5$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2018ko azaroaren 6tik 8ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduren 19an